

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4822

EBAZPENA, 2017ko urriaren 4koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, gazte langabeak prestatu eta kontratatzeko 2017rako diru-laguntzen deialdia argitaratzen da, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2017ko urriaren 3ko bilkurako Erabakiaren bidez, gazte langabeak prestatu eta kontratatzeko 2017rako diru-laguntzen deialdia onartu du, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan. Lanbideren Estatutuen 10.2 artikularen p) letran xedatutakoaren arabera –maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartua–, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio berau argitaratzea.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea gazte langabeak prestatu eta kontratatzeko 2017rako diru-laguntzen deialdia, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabaki bidez onartu zen, 2017ko urriaren 3ko bilkuran, eta ebazpen honen eranskin bezala jaso da.

Bigarrena.– Jakinaraztea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabakiak ondoreak izango dituela Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren kontra berraztertzeko errekurtoa jar dakiokela organo horri berari hilabeteko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 4a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

GAZTE LANGABEAK PRESTATU ETA KONTRATATZEKO 2017RAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, GAZTEEN ENPLEGURAKO 2014-2020 ALDIRAKO PROGRAMA ERAGILEAREN ESPARRUAN

Euskadiko enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen Dekretuaren (maiatzaren 31ko 82/2016) 2. artikulua xedatzen duenez, Enplegurako Lanbide Heziketa Lanbide Heziketaren sistemetako bat da, enpresen artean eta langileen artean, langabeak (lehentasunez) nahiz lanean ari direnak izan, lehiakortasun- eta kualifikazio-beharrizanei erantzuteko prestakuntza bultzatzea eta zabaltzea xede duten tresna eta ekintzez osatua. Prestakuntza horrek, halaber, gizartea kohe-sionatzen eta ekonomia garatzen lagunduko du, ezagutzen oinarritutako ekonomiaren esparruan.

Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dizkio enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketa, Lanbide Heziketaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloarekin koordinazioan. Azken hori honako hauen arduraduna da: lanbide-heziketa osoaren planifikazio estrategikoa, diseinua eta ildoak prestatzearena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankide-tzarekin, azken horrek dauzkan ardurei dagokienez.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, beste zenbait funtzioaren artean, enplegu-programen, enplegurako prestakuntza-programen eta autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko programen kudea-keta. Egiteko horiek barne hartzen dute dagozkion diru-laguntza deialdiak onartu eta izapidetzea, hala ezarrita baitago maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onarturiko erakunde autonomoaren estatutuen 3.b) artikuluan. Enplegurako prestakuntzaren barnean dago enpleguarekin osatutako prestakuntza, Euskadiko enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen Dekretuaren (maiatzaren 31ko 82/2016) 3. atalean arautua; zehazkiago, 28. artikuluan jasotzen da prestakuntza- eta ikas-kuntza-kontratuarekin lotutako heziketa duala.

Deialdi honek prestakuntza dualaren dinamizazioan indarrez eragin nahi du, prestakuntza horrek lotura baitu presentziazko profesionaltasun ziurtagiria lortzeko prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuarekin. Estatuko Gazte Bermearen sisteman alta emanda dauden gazte langabeei zuzenduta dago soilik.

Euskadiko enplegu-estrategiak, Kualifikazioa eta Gaitasunak izeneko ardatzaren barruan, helburu hau du, besteak beste: enpresek lanbide-heziketako programetan eta enplegurako prestakuntzan duten parte-hartzea handitzea, «prestakuntza duala» kontzeptuan erabakimenez aurrera eginez. Helburu hori lortzeko identifikatu diren ekintzen artean dago prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuek eta praktika-kontratuek eskainitako aukerak guztiz garatzea. Deialdi honek prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren garapenean eragiten du, aukera emanez kualifikazio profesional bat eta lan-esperientzia behar duten gazteen talde homogeneoak sortzeko eta aldi berean enpresen langile-beharrak asetzeko. Talde bakoitzak profesional-ziurtagiri bat egingo du aurrez aurreko modalitatean, eta aldi berean lan egingo du enpresa batean, jasotzen ari den prestakuntzarekin zuzenean lotutako lanpostu batean. Gazteak programaren hasieratik daude kontratatuta, eta laneko eta Gizarte Segurantzako berme guztiak ematen dituen lan-harreman bat dute.

Prestakuntza dualeko proiektuen tipologia honekin batera, deialdian jaso da ere beste kon-tratazio-konpromisoa duten proiektuen tipologia klasikoago bat; haren oinarria da hasieran

prestakuntza jasotzea eta prestakuntza amaitu ondoren gauzatzen den kontratazio bat. Deialdiaren asmoa da malgutasun nahikoa eskaintzea gauzatzeko epeari dagokionez, Gazte Bermearen Sistemaren esparruko ahalik eta langabe gazte gehienengana heltzeko.

Gazteen langabeziaren aurkako borroka oinarrizko helburu bat da egungo Europako gizartean. 2013ko otsailean Europar Kontseiluak Gazte Enpleguaren Ekimena martxan ipintzea erabaki zuen, 2014-2020 aldiko urte anitzeko finantza-esparruaren baitan. 2013ko apirilean, Europar Batasuneko Enplegu, Gizarte Gai eta Kontsumoko Ministro Kontseiluak Gazte Bermea ezartzea erabaki zuen, eta horrela gazte europarren egoera bereziki zaila onartu zuen.

2013ko abenduaren 17an Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1304/2013 (EB) Erregelamendua onartu zen, Europako Gizarte Funtsari buruzkoa, eta espezifikoki Gazte Enpleguaren Ekimena arautzen duena, Europar Batasuneko estatu kideetan gazteen langabeziari aurre egiteko finantza-tresna bezala.

Hazkunderako, lehiakortasunerako eta efizientziarako premiazko neurriak onartzeko Legeak (urriaren 15eko 18/2014) kontuan hartu zituen Europar Kontseiluaren 2013ko apirilaren 22ko Gomendioan jasotako jarraibideak, eta Estatuko Gazte Bermearen sistemaren oinarriak ezarri zituen.

2015eko uztailaren bigarren aukerako mekanismoarena, finantza-kargaren murrizketarena eta gizarte arloko bestelako neurrien Legearen (uztailaren 28ko 25/2015) azken xedapenetako hamabigarrenak Estatuko Gazte Bermearen sistemaren onurak 25 eta 30 urte artekoei ere onartu zizkien, langabezia-tasa, urteko azken hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, ehuneko 20tik gorakoa bada.

Estatuko Gazte Bermearen sistema sustatzeko presako neurrien Errege lege-dekretuak (abenduaren 23ko 6/2016) neurri batzuk onartu zituen Estatuko Gazte Bermearen sistemako izen-ematea eta arreta hobetzeko eta gazteen enplegarritasuna eta okupazioa sustatzeko. Arau horrek Estatuko Gazte Bermearen sistemaren onuradun izateko baldintzak sinplifikatu zituen, Europar Batasuneko araudietatik eratorritako baldintzak errespetatuz betiere; Estatuko Gazte Bermearen sistemako erakunde parte-hartzaile guztiei Estatuko Gazte Bermearen sistemaren fitxategi bakaurrean gazteen izena emateko aukera ematen die, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioarekin adostuta; eta aukera ematen die enplegu-eskatzaile bezala izena emanda dauden gazte guztiei, Gazte Bermearen baldintzak betetzen badituzte, izen honetan izena emateko, baita atzeraeraginarekin ere, Gazte Bermearen sisteman aurreikusitako jarduketaren batean parte hartzen ari badira.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak modu aktiboan hartzen du parte Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistemaren esparruan Gazte Bermearen sisteman izena eman dezaketen gazteak identifikatzen, eta horrela enpleguaren eta prestakuntzaren alorreko jarduketari modu aktiboan ekin dakieke kolektibo honekin.

Euskadin hainbat jarduketa egiten ari gara gazteekin Gazte Bermearen esparruan. Aipagarrienetakoak dira Lanbideko urtero egiten dituen bi deialdi: Lehen Aukera programa, eta gazte langabeak euskal enpresen atzerriko zentroetan praktiketan kontratatzeko diru-laguntzena. Hor kokatu behar da ere 2015eko berariazko deialdia, agindu honen bidez egindakoa: Agindua, 2015eko abuztuaren 28koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa eskatzeko deialdian parte hartzeari buruzkoa; deialdi hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020ko Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren tarte autonomikoan sartzen da.

Jarduerarekin Lotutako Biztanleriaren Inkestaren (PRA) arabera, 16 eta 29 urte arteko Euskadiko gazteen langabezia tasa % 18,7koa da (24.000 pertsona), eta % 23,1koa 16 eta 24 urte artekoena, 2017ko lehen hiruhilekoan. Langabe gazte horien ia % 20 iraupen luzeko langabeak dira, hau da, urtebete baino gehiago daramate lan gabezia. Sexuen arabera banaketari errepertzen badiogu, datuek erakusten dute, 2007tik lehen aldiz, gazteen langabezia handiagoa izan zela emakumeen artean (% 19,7) gizonen artean baino (% 17,8). Datu horiek 2016ko emaitza orokorren antzekoak dira. Orduan % 13,4koa zen Euskadiko biztanleriaren langabezia-tasa, baina 30 urtetik beherakoen artean % 23,7koa zen datu hori.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak, 2017ko urriaren 3an egindako bilkuran gazte langabeak prestatu eta kontratazeko 2017rako diru-laguntzen deialdia, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan, termino hauetan:

1. artikulua.— Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.— Deialdi honen xedea da 2017. urterako arautzea prestakuntza eta kontratazioa uztartzen dituzten proiektuak finantzatzera bideratutako laguntzak. Proiektuok Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan gauzatu beharko dira, langabeei zuzendurik, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan.

2.— Deialdi hau finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren aurrekontuan aurreikusitakoak dira, eta 10.000.000 euroko zenbatekoa dute. Horietatik, 1.879.200 2017ko aurrekontuaren ordainketa-kredituari dagozkio; 1.252.800 euro 2018ko konpromiso-kredituari eta 6.868.000 euro 2018ko aurrekontu arruntaren ordainketa-kredituari, honela banatuta:

a) 3.132.000 euro; horietatik 1.879.200 euro 2017ko aurrekontuko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerako 1.252.800 euroak 2018ko konpromiso-kredituari, prestakuntza-ekintzak finantzatzeko.

b) 6.868.000, 2018ko aurrekontu arruntaren ordainketa-kredituaren kargura, lan-kontratuak finantzatzeko.

2018ko ekitaldiko lan-kontratuak finantzatzeko laguntzak ebazteko, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da 2018. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, betiere Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikulua onorioetarako; agindu horren bidez, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Nagusien kargutan egiteko diren gastu-espedienteen aurreratutako tramitazioa araupetu zen.

Guztira emango diren laguntzen bolumenak ez du gaindituko aipatutako kopurua edo hori eguneratzen ateratzen dena, baldin eta indarreko legeriaz bat aurrekontu-aldaketak onartzen badira; eta hala bada, zirkunstantzia hori argitara eman beharko da EHAAn, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez eman ere.

3.— Deialdi honen xede diren laguntzak Europako Gizarte Funtsak kofinantzatuko ditu % 91,89an osorik edo partzialki, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan.

2. artikulua.— Diruz lagundu daitezkeen ekintzak.

1.— Deialdi honen barruan diru-laguntza jaso ahal izango dute prestakuntza eta kontratazioa uztartzen dituzten proiektuek, baldin eta 4. artikuluan zehaztutako kolektiboari zuzentzen bazaizkio eta tipologia hauetakoren batekoak badira:

a) kontratatzeko konpromisoa dakarten prestakuntza-proiektuak, hasieran prestakuntza-fase bat eta ondoren ikasleen kontratazio-fase bat dutenak.

b) prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratueta oinarritutako prestakuntza dualeko proiektuak.

Bi kasuetan, diru-laguntza jaso ahal izango dute egiten diren prestakuntza-ekintzen eta lan-kontratuek, jarraian adierazitako betekizun eta baldintzak betetzen badituzte.

2.– Prestakuntza-ekintzei dagokienez, diru-laguntza jaso ahal izango dute aurrez aurreko modalitatean ematen direnek, ezaugarri hauen arabera, garatu beharreko proiektu motaren nola-kotasuna kontuan izanik.

2.1.– Prestakuntza hasieran ematen duten proiektuak, ondorengo kontratazio-konpromisoarekin:

a) Prestakuntzak 120 orduko iraupena izango du gutxienez eta 450eko gehienez, eta ematen hasten denetik hiru hilabeteko epean emango da gehienez.

b) Prestakuntzak lotura izan dezake zeharkako espezialitateekin eta oinarritzko gaitasunak eskuratzeko espezialitateekin edo kualifikazioa lortzeko prestakuntzarekin, eta lehentasuna izango dute profesionaltasun-egiaztagiria lortzeko prestakuntza-ekintzek; egiaztagiriaren prestakuntza-modulu oso bat eman beharko da gutxienez. Baldin eta profesionaltasun-egiaztagirian jaso ez diren gaitasun profesionalak identifikatu badira, Prestakuntzako Espezialitateen Katalogoan jasotako prestakuntza-espezialitate bat eman ahal izango da, edo proiekturako berariaz sortutako espezialitate bat eman ahal izango da; azken hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu beharko du aldez aurretik.

Profesionaltasun-egiaztagiri bat lortzeko helburuarekin ematen ez diren prestakuntza-espezialitateen kasuan, espezialitate horren iraupen osoa eman beharko da.

c) Prestatutako ikasleen % 70 kontratatu beharko da gutxienez. Horretarako, artikuluko honen 3. atalean zehaztutako baldintzak betetzen dituzten lan-kontratuak sinatuko dira.

d) Profesionaltasun-egiaztagiri oso bat ematen denean, kontratatutako ikasleek ez dute prestakuntza praktikoaren modulua lan-zentroan egingo; modulu hori baliozkotuta geratuko da enpresan ondoren lortuko den lan-esperientziarekin, betiere lan eraginkorra hiru hiletik gorakoa bada eta lan-jarduerak lotura badauka moduluko prestakuntzaren edukiarekin.

Enpresarekin lan-harremanik ez duten ikasleen kasuan, edo azkenean hiru hiletik beherako iraupeneko lan-harremana dutenenean, prestakuntza-erakundeak erraztasunak emango dizkie ikasleei lan-zentroan prestakuntza praktikoaren modulua lan-zentroan egin dezaten, ikasleek profesionaltasun-egiaztagiria lor dezaten.

2.2.– Prestakuntza duala, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratueta oinarritutakoa.

a) Kontratua eta horri lotutako prestakuntza-jarduerak adostu eta gauzatzean prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua garatzen duen eta lanbide-heziketa dualaren oinarriak ezartzen dituen Errege Dekretuan (azaroaren 8ko 1529/2012) eta hura garatzeko arauetan ezarritako araudia beteko da.

b) Prestakuntzaren oinarri izango da ikasleak, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren bidez, egingo dituen lanbideekin zuzenean lotutako profesionaltasun-egiaztagiria. Prestakuntza egiaztagiri horri buruzkoa izan daiteke bakarrik, edo profesionaltasun-egiaztagiriko modulu osoak eta egitekoak behar bezala egin ahal izateko beharrezkotzat jotzen den prestakuntza osagarria konbina ditzake; horren barne daude beste profesionaltasun-egiaztagiri bateko prestakuntza-unita-

teak, baldin eta lanbide nagusian jarduteko beharrezkoak diren zeharkako gaitasunen ingurukoak badira.

Ez da diru-laguntzarik emango prestakuntza Lanbide Heziketako titulu batean oinarrituta badago.

c) Ikasle guztiak lan-kontratuaren modalitatearen bidez kontratatu behar dira, artikuluko honetako 3. atalean azaldutako baldintzekin.

d) Laneko eta prestakuntzako egutegi bat prestatu beharko da, kontuan izanik prestakuntza kontratuaren lehen sei hilabeteetan eman behar dela beti eta amaitzeko berandueneko data 2018ko ekainaren 30a dela.

e) Profesionaltasun-egiaztagiri oso bat ematen denean, ez da prestakuntza praktikoaren modulua lan-zentroan egingo; modulu hori baliozkotuta geratuko da enpresan lortuko den lan-esperientziarekin, betiere lan-jarduerak lotura badauka moduluko prestakuntzaren edukiarekin.

3.— Lan-kontratuei dagokienez, diru-laguntza jaso ahal izango dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lan-zentroetan zerbitzuak emateko deialdi honen babespean diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetako ikasleekin lanaldi osorako sinatzen direnek, baldin eta jarraian proiektu mota bakoitzarentzat ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Edonola ere, laneratzea prestakuntza-proiektuaren eskaera aurkeztu zuten enpresetan egin beharko da. Laneratzea beste enpresa batzuetan egitea onartuko da, eskatutako enpresetan laneratzea egitea eragozten duten kausak badaude eta horiek agiriaren bidez justifikatuta badaude.

Ez da diruz lagunduko honako hauek kontratatzea: enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren ezkontidea, oinordekoak eta gainerako senideak, bigarren mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna arte, eta sozietate izaera juridikoa duten enpresetako administrazio-organotako enak edo zuzendaritzako kideenak; eta azken horiek kontratatzea ere ez da lagunduko diruz.

3.1.— Prestakuntza aurretik ematen duten proiektuak, ondorengo kontratazio-konpromisoarekin:

a) Kontratuak idatziz jasoko dira, lan-arloko legeriak aurreikusitako kontratu-modalitateetako edozeinetan, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren modalitatean izan ezik.

b) Lan-kontratuaren iraupena 6 hilabetekoa izango da gutxienez.

c) Kontratazioa emandako prestakuntza-espezialitatearekin lotutako lanpostu batean egin beharko da. Horren harira, enplegu egokitza joko dira honako hauek: alde aurreko prestakuntzan eskuratutako ezagutza teoriko eta praktikoei lotutako lanak egitea helburu duten enpleguak.

d) Lan-kontratua prestakuntza amaitu eta jarraian egin beharko da eta, edozein kasutan ere, prestakuntza amaitu eta hilabeteko epean gehienez ere.

3.2.— Prestakuntza duala, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren oinarritutakoa.

a) Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuak egin eta gauzatzekoan Langileen Estatutuaren Gizarte Segurantzaren 11.2 artikuluan eta hura garatzeko arauetan jasotako terminoak beteko dira.

b) Kontratuan adostutako ordainsaria indarreko LGSren % 75ekoa izango da gutxienez, lanaldi eraginkorra hitzarmen kolektiboan adostutako gehieneko lanaldiaren eta legezko gehieneko lanaldiaren % 75etik beherakoa bada ere.

c) Kontratua prestakuntza-ekintza hastearekin batera edo hura hasi aurretik jarriko da indarrean.

4.— Prestakuntza-ekintzak eta prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuak 2017ko ekitaldian hasi beharko dira, prestakuntzarako diru-laguntzen ebazpenaren jakinarazpenetik aurrera.

5.— Prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileak 25 izango dira gehienez ere, prestakuntza profesionaltasun-egiaztagiriak lortzeko helburuarekin egiten bada; eta 30, prestakuntza profesionaltasun-egiaztagiriak egiteko helburuarekin egiten ez bada. Gutxienez 8 parte-hartzaile izan beharko dira.

3. artikulua.— Enpresa eta pertsona onuradunak.

1.— Deialdi honetako prestakuntza-ekintzetarako diru-laguntzei dagokienez.

1.1.— Laguntza hauen onuradun honako hauek izango dira:

a) Erakunde edo enpresa pribatuak, pertsona fisikoak zein juridikoak izan eta beren forma juridikoa edozein izanik ere, prestatutako pertsonak zuzenean kontratatutako dituztenak. Prestakuntza beren baliabide propioekin egin dezakete. Kasu horretan alta emango zaie Lanbideek kudeatutako Enplegurako Lanbide Heziketako Entitateen Erregistroan aldi baterako, prestakuntzak iraun bitartean. Bestela, kontratazio bidez eman dezakete prestakuntza, betiere helburua lortzeko egokia bada.

Salbuetsita daude Administrazio Publikoak eta erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeak, bai eta langileak hornitzen dituzten aldi baterako laneko enpresak.

b) Hezkuntza-erakunde pribatu edo publikoak, betiere, deialdi hau argitaratu baino lehenago, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako hezkuntza-entitateen erregistroan, autonomia-erikidego bateko prestakuntzarako beste entitate-erregistro batean edo Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistroan, akreditatuta edo horietako batean izena emanda daudenak, diru-laguntza eskatzen den prestakuntza-ekintzei dagozkien prestakuntza espezialitateak irakasteko.

Espezialitateen katalogora prestakuntza-espezialitateak gehitzen badira edo Lanbideek deialdi hau argitaratu ondoren prestakuntza-espezialitate berriak onartzen baditu, erregistroko inskripzioa ere ondoren egin ahalko da.

Prestakuntza-ekintzengatik diru-laguntza jaso nahi badute, prestakuntza-erakundeek, eskaera egin aurretik, enpresen konpromisoa behar dute, prestakuntza amaitutakoan edo eman bitartean prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratu baten bidez ikasleak kontratatutako dituztela esanez, edo bestela prestakuntza-erakunde pribatuaren beraren konpromisoa aurkeztu behar dute, ikasleak beren plantillara sartzeko, baldin eta eurek gauzatuko badute prestakuntza-proiektua.

1.2.— Prestakuntza-ekintzak gauzatzeko deialdi honetan aurreikusten den diru-laguntza eskuratzeko, enpresek eta prestakuntza-erakundeek diru-laguntza eskatzen duten prestakuntza-ekintzak egiteko giza baliabideak eta materialak izan beharko dituzte, edo konpromisoa hartu beharko dute diru-laguntzaren esleipenaren ondoren horiek izango dituztela, prestakuntza-ekintzak hasten direnerako.

Instalazio eta baliabide horiek propioak edo beste erakunde pribatu edo publikoenak izan beharko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egon beharko dute erabilgarri.

Informazio hori egiaztatzeko erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da eskaerarekin batera. Bertan jasoko da diruz laguntzeko eskatzen den

ekintza guztiak emateko plangintza, denborari eta logistikari dagokionez, eta erakundeak dituen edo izango dituen instalazioak eta giza baliabideak zehaztuko dira, prestakuntza-ekintza bakoitza egiteko erabiliko direnak.

Edonola ere, erakunde eskatzaileak adierazpen horretan jasotako datuak egiaztatzeko dokumentazioa prest izan beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarentzat.

1.3.– Enpresa edo erakunde batek ezingo du prestakuntza-ekintzetarako diru-laguntza eskuratu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako prestakuntza ekintzetan hartutako kontratazio-konpromisoen % 70 baino gehiago bete ez badu aurreko hiru ekitaldietako deialdiren batean.

2.– Diruz lagunduetako prestakuntza-ekintzen ikasleekin sinatutako lan-kontratuak finantzatzeko diru-laguntzei dagokienez, horien onuradunak izan ahalko dira kontratazioak egiten dituzten erakunde edo enpresa pribatuak, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan lan-zentroa dutenak, betiere Administrazio Publikoak eta erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeak izan ezik, bai eta langileak hornitzen dituzten aldi baterako laneko enpresak.

Enpresa eta erakunde onuradunek langileen legezko ordezkariak jakinarazi beharko diete deialdi honen babespean egindako kontratazioa.

3.– Ezingo dira izan onuradunak honako egoera hauetako batean diren enpresa edo erakundeak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

Horretarako, automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak baldintza hori betetzen den, diru-laguntza eman aurretik eta ordainketa bakoitzaren aurretik, baimenik lortu behar izan gabe, horretarako, ez da eskatzaileen baimenik beharko, hala xedatzen baitu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Gizarte Segurantzaren onartzen duen Legegintzako Dekretuak (azaroaren 11ko 1/1997) 50.3 artikuluan.

Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, egoera hori egiaztatzeko agiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Diru-laguntzen itzulketagatik eratorritako betebeharrak ordaindu gabe izatea.

c) Ez izatea diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik gabe uzten duen zigor- edo administrazio-zehapenik, eta, era berean, ez izatea aurreko horretarako ezgaitzen duen inolako lege-debekurik, barne hartuta arrazoi hauengatik gertatu direnak:

– Sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005) eta emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko Lege Organikoaren (martxoaren 22ko 3/2007) arabera.

– Ebazpen irmo bidez zehapen osagarria jaso izanagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako lan arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen Gizarte Segurantzaren 46.1.b) eta 46 bis.1.b) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

d) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 13. artikuluen 2. eta 3. zenbakietan jasotako itzulketa-kausaren batean egotea.

e) Europar Batasuneko Batzordeak diru-laguntza bat ilegal eta merkatu komunarekin bateraezin gisa deklaratu duen aurretiazko erabaki baten ondoren, egiteke dagoen berreskuratze-agindu baten mende egotea.

4. artikulua.– Prestakuntza- eta kontratazio-proiektuen hartzaileak.

Deialdi honen babespean diruz lagundutako proiektuetan parte hartu ahal izango dute bakarrik 30 urtetik beherako langabeek, betiere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste autonomia-erkidego bateko enplegu-zerbitzu publikoan eta Estatuko Gazte Bermearen sisteman izena emanda badaude.

5. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Prestakuntza-ekintzen finantzaketa parte-hartzaile eta ordu bakoitzeko kostuaren arabera izango da, deialdi honen I. eranskinean aurreikusten diren modulu ekonomikoei jarraikiz.

Modulu ekonomiko bakoitza hiru zatitan banatu da: horietako bi zuzeneko kostuei dagozkie, langileenak (A modulua) eta funtzionamendukoak (B modulua), eta hirugarrena zeharkako kostuei dagozkie (C modulua), zuzeneko kostuei buruzko baturaren % 10 aplikatuz kalkulatuta.

Langileentzako zuzeneko kostuei buruzko modulu ekonomikoa (A) beti biderkatuko da 15 parte-hartzailearen kopuruarekin.

Eranskinean jasota ez dagoen espezialitate berririk balego, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak espezialitate horretarako onartzen duen modulu ekonomikoaren arabera emango da diru-laguntza; horren berri emango zaio enpresa edo erakunde eskatzaileari diru-laguntza eman aurretik.

Azkenean aplikatu beharreko modulu ekonomikoek ezin izango dute gaintitu, inola ere, martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua garatzen duen martxoaren 7ko TAS 718/2008 Aginduan aurreikusitakoak. Profesionaltasun-egiaztagiriak lortzera zuzenduta dauden prestakuntza-ekintzen kasuan, gehieneko muga urriaren 10eko ESS/1897/2013 Aginduan jasotakoa da (Horren bidez garatzen da 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, profesionaltasun-egiaztagiriak arautzen dituen). Ondorioz, azken modulua osatzen duten hiru moduluen batura araudi horietan aurreikusitakoa baino handiagoa balitz, araudian jasotako kopuruak aplikatuko dira.

2.– Deialdi honen babespean egindako lan-kontratuei dagokienez, kontratuaren lehen sei hila-beteak baino ezin dira diruz lagundu, kontratuen iraupena luzeagoa izan arren, eta betiere 2018ko abuztuaren 31rako epe hori bete bada. Bestela, kontratuaren hasieratik data horretara arteko epea baino ezingo da diruz lagundu.

Diru-laguntzaren zenbatekoak honako hauek dira:

a) Ondorengo kontratazio-konpromisoa duten aurretiko prestakuntza-proiektuetan:

– Kontratuek ez badute inolako murriztapenik edo hobaririk Gizarte Segurantzako kotizazioan: 6.000 euro lan-kontratu bakoitzeko.

– Kontratuek murriztapenak edo hobariak badituzte Gizarte Segurantzako kotizazioan: 4.950 euro lan-kontratu bakoitzeko.

b) Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuetan oinarritutako prestakuntza dualean: 3.500 euro lan-kontratu bakoitzeko.

Kasu guztietan, adierazitako zenbatekoak diruz lagundu daitekeen gehieneko kontratazio-epeari (6 hilabete) dagozkio. Diruz lagundu daitekeen epea laburragoa balitz, diru-laguntzaren zenbatekoa kontratuaren hasieratik 2018ko abuztuaren 31ra arteko epearekiko proportzionala izango da.

6. artikulua.– Eskabideen aurkezpena.

1.– Deialdi honek aipatzen dituen prestakuntza-proiektuei dagozkien prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntzen eskaerak modu elektronikoa izapidetuko dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntzarako aplikazio informatikoaren bidez (LAN-F).

Aplikazio honetarako sarbiderik ez duten erakundeek edo enpresek Lanbideren web-orriaren bidez eskatu ahalko dute (www.lanbide.euskadi.eus).

Diru-laguntza eskatzen den prestakuntza-ekintza bakoitzeko eskaera bat aurkeztu beharko da, eta horietako bakoitzak administrazio-espeditente bat osatuko du.

Diru-laguntzaren eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Eskaera egiten duen enpresa edo erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena. Bertan, diru-laguntza eskatzen duten prestakuntza-plana egiteko giza baliabideak eta materialak dituztela bermatuko dute, edo diru-laguntzaren esleipenaren ondoren horiek izateko konpromisoa hartu beharko dute, prestakuntza-ekintzak hasten direnerako. Gainera, prestakuntza-plana osatzen duten prestakuntza-ekintzak egiteko plangintza ere jasoko da, denborari eta logistikari dagokionez, eta erakundeak dituen edo izango dituen instalazioak eta giza baliabideak zehaztuko dira, prestakuntza-ekintzak egiteko erabiliko direnak.

b) Enpresa edo erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, salbu eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erregistroan alta emanda dauden erakundean badira, azken kasu horretan ez baita beharrezkoa txartelaren kopia aurkeztea.

c) Ikasleak kontratatuko dituzten enpresa edo erakundearen konpromisoak (LAN-F aplikazioan emandako ereduaren arabera).

d) Prestakuntza-proiektuaren memoria, LAN-F aplikazioan emandako ereduaren arabera eta honako hauek bilduko dituen:

- Gauzatuko den proiektu motaren identifikazioa: hasieran prestakuntza eta ondoren kontratazioa, edo prestakuntza duala, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren bidez.

- Enpresaren jarduerarekin lotura duen prestakuntza egiteko eta ondoren horren parte-hartzaileak kontratatzeke beharra azaltzen duen txosten arrazoitua, honako hauek jasoko dituen:

- Prestatu beharreko pertsona-kopurua eta kontratatu beharreko pertsona-kopurua.

- Ikasleen profila (prestakuntzaren hartzaileen ezaugarriak eta betekizunak).

- Egingo den kontratu mota eta horren iraupena.

- Prestakuntzarekin lotutako lanpostuak eta lanbide-kategoria (horietan kontratatutako dira ikasleak) baita lan-zentroaren kokapena ere.

e) Prestakuntza-ekintza kontratatzen bada, kontratazio-proposamena (hiru eskaintza eskatzea eta azken hautaketa justifikatu behar ditu), baita Lanbideri aurretiaz egindako baimen-eskaera ere, 12.10 artikuluan jasotako kasuetan.

Dokumentazio hori ondoren ere aurkeztu ahalko da, baina prestakuntza-ekintza hasi baino lehen.

2.– Lan-kontratuak egiteagatiko diru-laguntzen eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan aurkez daitezke, edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein

enplegu-bulegotan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 16.4 artikuluan aurreikusitako lekuetako edozeinetan.

Deialdi honetako II. eranskinean ageri den eskabide normalizatuan egin behar da eskaera (hemen eskura daiteke: <http://www.lanbide.euskadi.eus>), eta dokumentazio hau aurkeztu beharko da horrekin batera:

a) Eskatzailea pertsona fisiko bat bada, nortasun-agiri nazionalaren, pasaportearen edo nortasun-agiri baliokidearen kopia, edo atzerriarren identifikazio-zenbakia, edo laguntzaren organo kudeatzaileak nortasun-datuak egiaztatu ahal izateko berariazko baimena.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, enpresaren identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, salbu eta prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztu bada edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan alta emanda dauden erakunderen bat bada.

c) Kontratututako pertsonen nortasun-agiri nazionalen edo atzerriarren identifikazio-zenbakien kopia.

d) Egindako kontratuaren kopia.

e) Langileen Legezko Ordezkariei (LLO) kontratazioaren berri emateko bidalitako jakinarazpena, edo LLOrik ez bada, enpresan LLOrik ez dela dioen berariazko jakinarazpena eskabidean bertan adierazita.

3.— Eskaerak ez baditu baldintza guztiak betetzen, enpresa edo erakunde interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun balioduneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, izandako hutsune edo akatsa konpontzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Hori egingo ez balu, eskaerari uko egiten diola ulertuko da, horretarako beharrezkoa den ebazpena eman eta gero.

4.— Diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epeak hauek izango da:

a) Prestakuntza-ekintzetarako, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2017ko azaroaren 3an bukatuko da.

b) Lan-kontratueterako, epea hamar egun baliodunekoa izango da, lan-kontratua hasi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

7. artikulua.— Prozedura eta ebazpena.

1.— Prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntzen prozedura tramitatzeko organo eskuduna Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritza izango da, eta lan-kontratuengatik diru-laguntzak emateko prozedurak tramitatzeko organo eskuduna, berriz, Laneratzea Aktibatze Zuzendaritza.

Diru-laguntzen eskaerak ebazteko organo eskuduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia da.

2.— Deialdi honetan prestakuntza-ekintzak egiteko aurreikusitako diru-laguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira.

2.1.— Eskaerak aztertu eta ebaluatzeko izaera teknikoko ebaluazio-batzorde bat eratuko da. Batzordeak kide hauek izango ditu:

– Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentako zuzendaria.

– Laneratzea Aktibatzeko zuzendaria.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko lau teknikari, horretarako izendatuak.

2.2.– Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta horiek deialdi honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, ebaluazio-batzordeak hurrengo artikuluan aurreikusitako ebaluazio-irizpideak aplikatuko ditu eta ebazpen-proposamen bat idatziko du.

2.3.– Ebazpenean eman nahi diren diru-laguntzak jasoko dira, baloraziotik ondorioztatzen den lehentasun-hurrenkeran, diru-laguntzaren zenbatekoa adieraziz. Era berean, ukatutako diru-laguntzak ere jasoko dira, uko egiteko arrazoiak adieraziz. Enpresa eta erakunde interesdunei jakinaraziko zaizkie.

2.4.– Ebazpenak eman eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, deialdi hau EHAA-n argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarota, enpresa edo erakunde interesdunari jakinarazpenik egin ez bazaio, diru-laguntza ezetsitzat joko da.

3.– Deialdi honetan prestakuntza-ekintzak egiteko aurreikusitako diru-laguntzak segidako konkurrentziaren prozeduraren bidez emango dira.

3.1.– Eskabideek deialdiko eskakizunak betetzen dituztela egiaztatutakoan, ordenan emango dira laguntzak, espedientea osatzen den unearen arabera, jarduketa horietarako 1.2.b) artikuluan aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura amaitu arte.

Hasierako aurrekontua eta horren zabalpen posiblea agortzen direnean, geratzen diren eskaerei ezezkoa emango zaie, eta EHAA-n emango da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3.2.– Ez da diru-laguntzarik emango lan-kontratuengatik, baldin eta prestakuntza-proiektuko prestakuntza-ekintzak egiteagatik ez bada diru-laguntzarik eman.

3.3.– Ebazpenak eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskaera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatuta. Epe hori igarota, enpresa edo erakunde interesdunari jakinarazpenik egin ez bazaio, diru-laguntza onartutzat joko da.

4.– Enpresa eta erakunde onuradunei diru-laguntzak onartzeko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta egotea.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenek amaitu egiten dute administrazio-bidea eta horien aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

6.– Diru-laguntzak emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenean, espresuki aipatuko da EGIFen finantzaketa, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan.

7.– Publizitate printzipioa betetzearren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, deialdi honen babespean emandako laguntzen onuradun diren enpresa

eta erakundeen zerrenda argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jasotako zenbatekoak eta EGIFek gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan emandako kofinantzaketa espresuki adierazita.

8. artikulua.– Prestakuntza-ekintzengatiko diru-laguntzen eskaeren balorazio-irizpideak.

Prestakuntza-ekintzengatiko diru-laguntzen eskaerak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

a) Lehentasuna izango dute proiektua bere osotasunean gauzatzen duten enpresa edo erakundeak eskaerek, hau da, prestakuntza (beren baliabideekin edo kontratazio bidez) eta lan-kontratuak egingo dituztenen eskaerek, prestakuntza-ekintzak baino egingo ez dituzten erakundeek aurkeztutako eskaeren aurrean.

b) Aurreko irizpidearen arabera eskaerak antolatu ondoren, aurkeztutako prestakuntza-proiektuaren ondorioz sortutako lan-kontratuen kopuruaren arabera ordenatuko dira, eta puntuazioa emango da, gehienez ere 10 puntu, honela:

Kontratu kop.	Puntuak
6, 7 edo 8	1
9 edo 10	2
11 edo 12	3
13 edo 14	4
15 edo 16	5
17 edo 18	6
19 edo 20	7
21 edo 22	8
23 edo 24	9
25 eta 30 bitartean	10

c) Kredituaren amaierako banaketan berdinketarik badago, lan-kontratuen iraupenaren arabera ordenatuko dira, puntuazioa honela emanda:

– Kontratu mugagabeak. 5 puntu kontratu bakoitzeko.

– Urtebetetik gorako iraupena duten kontratuak: 3 puntu kontratu bakoitzeko.

– Urtebeteko iraupena duten kontratuak. 2 puntu kontratu bakoitzeko.

– Sei hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiagoko iraupena duten kontratuak: 1 puntu kontratu bakoitzeko.

d) Horrela ere berdinketarik balego, diru-laguntzen eskaeraren Erregistroko sarrera-dataren arabera ordenatuko dira, zaharrenetik berrienera.

9. artikulua.– Prestakuntza-proiektuetan parte hartuko duten pertsonen hautaketa.

1.– Hautaketa eskaerarekin batera aurkeztutako prestakuntza-proiektuaren memorian jasotako pertsonen profilaren arabera egingo da. Horrek bat egingo du enpresen edo erakundeen kontratazio-beharrekin.

2.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen aurretiko hautaketa bat egingo du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ikastaroetan parte hartzeko hautagaien artean.

Izangaiek aurrez aurre egin ahal izango dute eskaera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren sareko bulegoren batean eskaera bat aurkeztuta, edo eskaera erakunde autonomo honen webgunean bete ahal izango dute (www.lanbide.euskadi.eus). Prestakuntza-ekintzak, haietan izena emateko epea eta eskatzaileek bete behar dituzten sarbide-baldintzak adieraziko dira webgunean, bai eta prestakuntza-ekintza bakoitzaren xehetasunak eta ezaugarriak ere.

Era berean, kontuan izango da ere beharrezko profila izan dezaketen pertsonak izan daitezkeela enplegu-eskatzaileen artean, batik bat DSBEn jasotzen dutenen artean (horiei Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Orientazio Zerbitzuak ikastaroa egiteko agindu badiete, beren prestakuntza-ibilbidearen barruan), bai eta Lanbidek profesionaltasun-egiaztagiri bat osatzeko falta zaizkien prestakuntza-moduluekin osatutako prestakuntza-ekintza bat egiteko Lanbidek deitutako enplegu-eskatzaileen artean ere.

3.– Profesionaltasun-egiaztagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko, profesionaltasun-egiaztagiriak arautzen dituen Errege Dekretuaren (urtarrilaren 18ko 34/2008) 20. artikuluan jasotako eskakizunak bete behar dituzte parte-hartzaileek, kualifikazio profesionalaren 2. eta 3. mailetarako. Era berean, prestakuntzako espezialitateen katalogoko prestakuntzako espezialitatei dagozkien beste prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko, hautagaiek katalogoko espezialitate bakoitzarentzat ezarrita dauden eskakizunak bete behar dituzte.

4.– Ikastaroetan parte hartzen duten ikasleen azken hautaketa enpresa edo erakunde onuradunak egingo du, Lanbidek igorritako hautagaien artean. Horretarako, prestakuntza emango duen erakundeak inskribatutako hautagaiak ikusteko sarbidea izango du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-kudeaketarako aplikazioaren bidez (LAN-F). Erakundeak prestakuntza-ekintzak hasi aurretik eta dagozkion bermeekin egingo du hautaketa-prozesua. Erakunde onuradunak kontuan izandako hautaketa-irizpideak justifikatu beharko ditu Lanbideren aurrean.

Behar duten prestakuntza-ekintza guztietan hautapropa bat egingo da. Hori erakundearen instalazioetan egingo da eta aurrez Lanbiderekin adostu beharko da, ekintza behar bezala aprobetxatzen dela ziurtatzeko eta kualifikazio-ekintzen helburuak lortzeko ezinbestekoak diren aurretiazko ezagutzen maila erreala zehazteko. Proba hori LAN-F aplikazioaren dagokion atalean erantsiko da.

5.– Hautaketa amaitutakoan, enpresa eta erakunde onuradunek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eman beharko diote horren emaitzen berri, kudeaketarako LAN-F informatika-aplikazioaren bidez eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako jarraibideei jarraituz.

6.– Aukeratuak izan diren pertsonen eta ikastaroetan parte hartzeko erreserba-egoeran gelditzen diren pertsonen zerrendak jendaurrean ipini behar dituzte prestakuntza-erakundeek beren instalazioetan, eta prestakuntza-ekintzak non, noiz eta zer ordutan egiten hasiko diren adierazi behar dute. Zerrenda hori prestakuntza-ekintzak abiarazi baino 24 ordu lehenago erakutsi behar da gutxienez, hautagaiei aldez aurretik adierazi zaien leku batean.

Iragarpen horiez gain, egoki iruditzen zaizkien beste bitarteko guztiak ere balia ditzakete prestakuntza-zentroek ikasleei alderdi horien berri emateko.

10. artikulua.— Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.

1.— Prestakuntza-ekintzak doakoak dira ikasleentzat eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagunduko ditu.

2.— Eusko Jaurlaritzak sinatutako istripu eta erantzukizun zibileko polizak barne hartzen ditu ikasleak ikastaroetara joateagatik eta prestakuntza ematen den lekurako joan-etorrietatik eratorritako arriskuak.

3.— Klaseko lehen egunean ikastaroaren egutegia, prestakuntza-ekintzaren programa eta ikasleen eskubide eta betebeharren dokumentua jasoko dute ikasleek, eta dokumentu hori sinatuko dute.

Era berean, ondorengo kontratazio posiblearen berri emango zaie ere, hasierako prestakuntza eta ondorengo kontratazio-konpromisoa duten proiektuetan, eta lan-kontratuen baldintza zehatzak jakinaraziko zaizkie (lan-zentroaren kokapena, lanbide-kategoria, ordainsaria, lanaldia eta ordutegia, kontratuaren iraupena...).

4.— Ikasleek modu jarraituan joan beharko dute eskoletara, eta prestakuntza-ekintzei probetxua atera beharko diete. Hori bermatzeko, enpresa edo erakunde onuradunak eguneroko bertaratze-partea egin beharko du, eta irakasleak eta parte-hartzaileak sinatu beharko dute. Profesionaltasun-egiaztagirien kasuan, eguneroko partea bereizita egingo da prestakuntza-modulu bakoitzerako.

5.— Ikasleek ezin izango dute ikastaro batean baja eman beste prestakuntza-ekintza bat has-teko. Ekintza utzi ahal izango dute beste lan bat aurkitzen badute edo familian egoera larri bat sortzen bazaie, behar bezala justifikatuta.

11. artikulua.— Ikasleak baztertzeko arrazoiak eta prozedura.

1.— Ikasleak baztertzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

a) Prestakuntza-ekintzaren iraupenaren pilatutako % 25etik gorako hutsegiteak, edozein arrazoi, justifikatua edo justifikatu gabea, dela medio.

b) Ekintza ez aprobetxatzea edo hori ondo garatzea eragozteko moduko portaera, baita higie-nearen eta osasungarritasunaren arauak ez betetzea ere.

2.— Ikasleak baztertzeko prozedura hau izango da.

Prestakuntza-zentroak prestakuntzako teknikariari jakinaraziko dio baztertzeko arrazoietako bat gertatu dela, horretarako ezarri den formularioa erabiliz. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak arrazoi hori aztertuko du. Horren ostean, Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariak baztertzeko prozedura hasteari buruzko erabakia hartuko du. Ikaslea baztertzeko proposamena egiteko arrazoiak azalduko da erabaki horretan, eta ikasleak bost egun naturaleko epea izango du alegazioak aurkezteko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hamabost eguneko epean ebatzi beharko du prozedura, gehienez ere. Inguruabarrek hala eskatzen badute, kanporaketa hasteko erabakian behin-behineko neurriak hartu ahalko dira prestakuntza-jarduera behar bezala garatzea bermatzeko, hala nola erabakia jakinarazten den egunetik prozedura ebatzen den arteko egunetan ikaslea aldi baterako ikastarotik kanporatzea. Ebazpenean dagokion errekurtsioa jasoko da.

Ikasleren batek hutsegiteen % 25 gainditzen badu prestakuntza-ekintzaren iraupen-ordu guztiekin alderatuta, prestakuntza-zentroak horren berri emango dio Lanbideko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzari, ikaslea baztertzeko prozedura has-teko. Modulu oso bat geratzen bazaio egiteko, eta % 25etik gorako hutsegiteak arrazoi justifikatu batengatik gertatu badira (adibidez, gaixotasuna izatea edo lan-jarduera hastera), baloratu ahalko da pertsonak geratzen den modulua egitea, kontuan hartuta ikasle hori ezin dela justifikatutzat hartu prestakuntza-ekintzaren likidazioan.

Ikasle batek prestakuntza-ekintzara joateari utzi eta % 25etik gorako hutsegiteak gainditzen dituenean, zentroak Lanbideri emango dio horren berri eta baja emango zaio ofizioz, baztertzeko prozedura egin behar izan gabe.

12. artikulua.– Prestakuntza-ekintzak gauzatzea eta lortutako gaitasunak egiaztatzea.

1.– Diru-laguntzaren enpresa edo erakunde onuradunak deialdi honetan ezarritakoaren arabera eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ereduak aintzat hartuta gauzatu beharko ditu prestakuntza-ekintzak. Erakunde autonomo honen prestakuntzarako informatika-aplikazioa (LAN-F) erabiliko du prestakuntzaren hasiera jakinarazteko, bai eta gerora izan daitekeen edozein aldaketaren, prestakuntza-ekintzak bukatzearen eta parte-hartzaileen bertaratzea kontrolatzearen berri emateko ere.

Oro har, eta aurrerako jarraibiderik ematen ez bada, gehienez ere 7 egun naturaleko epean egin beharko zaizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagozkion jakinarazpenak.

2.– Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren oinarritutako proiektuetan prestakuntza-jarduera egiteko baimena eskatu beharko da kontratuaren hasiera baino lehen. Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua garatzen duen eta lanbide-heziketa dualaren oinarriak ezartzen dituen Errege Dekretuan (azaroaren 8ko 1529/2012) xedatzen da baimen hori, 16. artikuluan, eta SEPE aplikazioaren bidez eskatu behar da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laga zaio aplikazio horren erabilera.

3.– Deialdi honetan prestakuntza ematen duten prestatzaileak Lanbide baimendu beharko ditu. Era berean, prestatzaileen fitxategian sartu beharko dituzte, indarreko araudian ezarritako baldintzei jarraituz.

Profesionaltasun-egiaztagiria lortzeko asmoa ez duten prestakuntza-ekintzen kasuan, horiek zuzenean enpresek ematen badituzte, ez da beharrezkoa izango Lanbide prestatzaileak baimentzea. Irakasle horiei ez zaie alta emango Lanbideren prestatzaileen fitxategian.

4.– Langabeek ezingo dute prestakuntza-ekintzetan egunean 8 ordu baino gehiagorik parte hartu. Nolanahi ere, asteko ordu kopurua ezin izango da 40tik gorakoa izan. Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuen kasuan, horiek arautzen dituen araudiak beteko dira, eta proiektua enpresa edo erakundeek aurkeztutako eta Lanbide baimendutako prestakuntza-ekintza egiteko baimenaren arabera gauzatuko da.

5.– Enpresa eta erakunde onuradunek honako hauek emango dizkiete, gutxienez, parte-hartzaile guztiei ikasturte hasieran:

- Espezialitatearen eduki guztiak biltzen dituen eskuliburu bat, editatua edo euskarri informatiko batean.

- Ikastaroa behar bezala garatzeko beharrezkoa den idazmahaiko materiala eta

- Beharrezkoak diren babes-elementuak.

Era berean, ikasleei beren eskubide eta betebeharrak jakinaraziko dizkiete, bai eta deialdi hone-tan araututako baztertzeko prozedurak ere.

6.— Ikasle batzuek jarduera bertan behera uzten badute, beste ikasle batzuk sartu ahalko dira prestakuntzara haien ordeiz. Prestakuntza-ekintzaren iraupenaren ehuneko 25era iritsi baino lehen onartuko da ordezkapen hori, salbu eta profesionaltasun-egiaztagiriei loturiko prestakuntza-ekin-tzak badira, kasu horretan ordezkpena prestakuntza-ekintza hasi eta lehen bost eskola-egunetan gertatzen bada onartuko baita soilik.

Hasitako jardueretara eransten diren ikasleek bat etorri beharko dute enpresa edo erakunde kontratatzaileen profilarekin eta ikastaroari probetxua ateratzeko gaitasuna bermatzen duen adi-nako maila eduki beharko dute, ikastaroaren garapen arruntari eragin gabe.

7.— Prestakuntza emateko ardura duten enpresa eta erakunde onuradunek berehala jakina-razi beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileek prestakuntzari uko egiten badiote, aurkezten ez badira edo prestakuntzara joateari uzten badiote, egoera horien kausak ere azalduta, batik bat pertsona horiek langabezia-prestazioa edo -soros-pena edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen badute.

8.— Prestakuntza profesionaltasun-egiaztagiriak lortzera bideratuta ez dagoenean, parte-har-tzaile bakoitzari bertaratze-ziurtagiri edo diploma bat emango zaio, prestakuntzaren ebaluazio positiboa lortu badu. Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduak erabiliko dira, eta, eredu horietan, ekintzaren izena, prestakuntza-edukiak, klaseak emateko modalitatea, datak eta jasotako prestakuntza-orduen guztizkoa jasoko dira gutxienez.

9.— Prestakuntza profesionaltasun-egiaztagiriak lortzera bideratuta dagoenean, ikaslearen ebaluazioa moduluka egingo da, ikasketaren emaitzak egiaztatzeko eta, horren bidez, lanerako gaitasunez jabetu dela bermatzeko.

Ebaluazioa sistematikoki garatuko da, aldez aurreko plangintza bati egokituta, eta bertan jasoko dira, gutxienez, modulu bakoitzerako, hura egiteko aurreikusitako egunen aurreikuspena, zein toki-tan burutuko den, erabiliko diren ebaluazio-tresnak eta horien aplikazioak emango duen denbora (LAN-F aplikazioan emandako ereduaren arabera). Ebaluazio-tresna horiek eta parte-hartzaile bakoitzak egindako probak eskaneatu eta aplikazio informatikoan sartuko dira.

Prestakuntza-moduluetan egiaztatu beharreko emaitzak horiek ezaguerei zein gaitasunetan eta ebaluazio-irizpideetan bilduriko trebetasun praktiko eta abileziei buruzkoak izango dira, eta, oro har, lanbide-gaitasunak eskuratu direla frogatzea ahalbidetu beharko dute.

Gaitasun-atalen egiaztapena lortzeko, ebaluazio positiboarekin gainditu beharko dira, gai kalifi-kazioarekin, gaitasun-atal bakoitzari loturiko prestakuntza-moduluak.

Prestatzaileek dokumentu bidez islatuko dituzte txosten batean prestakuntza-modulu bakoitza-ren ebaluazioan ikasleek lorturiko emaitzak, eta bertan bilduko da aplikaturiko ebaluazio-tresnetan ikasle bakoitzak izandako jarduna, egindako zuzenketekin eta horietan lorturiko puntuazioekin (LAN-F aplikazioan emandako ereduaren arabera).

Modulua eman eta gero, ebaluazio-akta bete beharko da LAN-F informatika-aplikazioaren bidez, parte-hartzaile bakoitzak lortutako emaitzarekin: «gai», «gai, ez egiaztagarria» o «ez gai».

Prestakuntza praktikoko modulua lan-zentroan egiten bada parte-hartzailearen batekin, lan-zetroko prestakuntza praktikoko modulua egiten duten ikasleen jarraipena eta ebaluazioa batera egingo dute prestakuntza-zentroak eta enpresak hautaturiko tutoreek. Modulu hori gainditzen duten

ikasleek LAN-F aplikazioaren bidez emandako egiaztagiri bat jasoko dute. Ez dute prestakuntza praktikoko modulua egin beharko urriaren 10eko ESS/1897/2013 Aginduko 26. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten gazteek.

Ikastaroa amaitzerakoan, gainditutako prestakuntza-moduluei dagokien Egiaztapen Partzial Metagarria (EPM) emango zaie, eta, ikasleak profesionaltasun-egiaztagiria osatu badu, hori emateko prozedura abiaraziko da.

Ikasleak ikastaroa emaitza negatiboarekin amaitzen badu, bertaratze-ziurtagiri bat emango zaio, bai eta gainditu dituen prestakuntza-moduluaren Egiaztapen Partzial Metagarriak (EPMak).

Profesionaltasun-egiaztagiriei dagozkien prestakuntza-ekintzak ematen dituen zentroak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren LAN-F informatika-aplikazioaren bidez:

- Ikastaroa hasi aurreko 7 egun balioduneko epearen barruan:
 - Ebaluazioaren plangintza, Lanbidek ezarritako ereduaren arabera (LAN-F informatika-aplikazioaren bitartez jarriko da eredu hori onuradunen esku).
 - Erabili beharreko ebaluazio-tresnak, horiek zuzentzeko eta puntuatzeko dagozkien euskarriekin.
- Amaitu ondorengo 7 egun balioduneko epearen barruan:
 - Ikasleen emaitzak biltzen dituen online dokumentua, LAN-Fren bidez, Lanbidek ezarritako ereduaren arabera (LAN-F informatika-aplikazioaren bitartez jarriko da eredu hori onuradunen esku).
 - Ebaluazio-aktak, beteta.

10.– Diru-laguntzen prestakuntza-erakunde onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte prestakuntza-ekintzak, eta ezingo dute hirugarrenik azpikontratatu horretarako.

Onuraduna ez denean prestakuntza-erakunde bat, aukera izango du prestakuntza bere baliabide propioekin emateko edo beste bati kontratatzeko, betiere helburua lortzeko egokia bada. Behin bakarrik azpikontratatu ahal izango dute prestakuntza-ekintzaren % 100era arte, akreditatuko eta/edo izen-emandako erakunde batekin.

Diruz lagundutako prestakuntza-jarduera emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontratatzotzat joko. Irakasleak kontratatzearen esanahi bakarra da pertsona fisikoak kontratatzea.

Edonola ere, onuradunak bitarteko propioak izango ditu proiektua planifikatu eta zuzentzeko eta, edozein kasutan ere, ardura izango du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko. Horretarako, onuradunak zein azpikontratatistak, halakorik balego, jarraipen eta kontroleko organismoen funtzioak bermatuko dituzte.

Kontratatziora joz gero, onuradunak gutxienez ere hiru eskaintza eskatu beharko dizkie kontratuen zenbatekoak munta txikiko kontratuen zenbatekoa gainditzeko duenean (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Gizarte Segurantzaren onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan zehaztua dago munta hori), ezaugarri bereziengatik merkatuan zerbitzua ematen duen nahikoa erakunde ez badago. Aurkeztutako eskaintzen artetik bat aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta txosten baten bidez berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean.

Era berean, onuradunak aurretiazko baimena eskatu beharko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari hirugarrenekin azpikontrataturako prestakuntza-ekintzaren zenbatekoak diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen duenean eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa denean edo kontratua hari lotuta dauden pertsona edo erakundeekin sinatuko denean. Azken kasu horretan, gainera, kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egin behar da. Horretarako, baimen-eskaerarekin batera, sinatu nahi den kontratuaren kopia aurkeztuko da, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebatziko du. Baimena eman dela ulertuko da, hori aurkeztu eta 20 eguneko epearen barruan ez bada espresuki ebazten.

Nolanahi ere, atal honetan ezarritakoari jarraituz, zuzenean aplikatu beharko da Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 29. eta 31.3. artikuluetan xedatutakoa.

13. artikulua.– Prestakuntza-ekintzen jarraipena eta kontrola.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, prestakuntza ematen duen zentroarekin lankidetzan, prestakuntza-ekintzen jarraipena eta kontrola egingo ditu. Hori eskakizunak eta alderdi formalak betetzen direla egiaztatzeaz eta prestakuntzaren emaitzez haratago doan lana da, eta kalitatea bermatzeko balio izango du. Horretarako, prestakuntza-ekintzak garatzen diren zentroa bisitatu du eta idazki bidez jaso beharko du diru-laguntza onartzeko ezarritako baldintzak betetzeko beharra mantentzen dela (instalazioak, zuzkidura eta ekipamendua, baliabide didaktikoak, irakasleak...) edo, hala badagokio, zer nolako irregulartasunak hauteman dituen, ongi zehaztuta, arazoak konpon ditzaten.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua ikastarora bi bisita egiten ahaleginduko da, gutxienez:

– Hasieran. Bisitaldi honetan prestakuntza ematen duen zentroaren baldintzak egiaztatuko ditu, ikasleei ikastaroaren, horren edukien eta garapenaren eta beraien eskubide eta betebeharren inguruko datu guztiak emango dizkie eta ikasleek izan ditzaketen zalantza eta galderei erantzungo die.

– Ikastaroa amaitzean: zentroko baldintzak egiaztatuko ditu, ikasleei amaierako inkesta pasako die eta ikastaroaren balorazio orokorra eskatuko die.

3.– Europar Batasuneko araudian ezarritakoarekin bat eginez, Europako Gizarte Funtsak kofinantzatutako prestakuntza-ekintzak erakusteko, egiaztatze-bisitak egingo dira in situ, Europako funtsen parte-hartzetik sortutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

4.– Prestakuntza ematen duen zentroak Lanbidera bidali beharko du, ikastaroaren lehenengo hilabetea bukatu baino lehenago:

– Ikastaroaren funtzionamenduari buruzko txostena, homologazio-baldintzak eta ikastaroaren hasierako komunikazioan adierazitakoa betetzen direla egiaztatzen duena.

– Ikasleei aplikatutako kalitate-inkestak, ikasleek egindako oharrekin batera.

14. artikulua.– Prestakuntza-ekintzen ebaluazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen babespean emandako prestakuntza-ekintza guztien ebaluazioa egingo du, ebaluazio-sistema misto bat erabiliz. Ebaluazio-sistema mistoak bi iturri hauetatik bilduko du informazioa:

A.– Ikasleek betetako galdetegietaik lortutako batez besteko emaitzak, Enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituen Estatuko Enplegu

Zerbitzuaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera (2009ko ekainaren 11ko BOE). Galdetegi horiek ikasleek beteko dituzte telematikoki.

B.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak prestakuntza-ekintzaren bukaeran egindako bisitaldian emandako puntuak, «Prestakuntza-zentro/erakundeak emandako prestakuntzaren ebaluazioa» ereduzko agiriarekin bat etorrira.

Nolanahi ere, emandako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko nahitaez egin beharko da prestakuntza-zentro edo -erakundeak emandako prestakuntza-ekintza bakoitzarentzako sintesi-adierazle bat. Sintesi-adierazle horrek aipatutako bi iturrietatik lortutako emaitzak haztatuko ditu, beheko formula honen arabera:

A= Ikasleek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko puntuazioa; enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituen Estatuko Enplegu Zerbitzuaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera izango dira galdetegi horiek.

Atal honek % 60ko pisua izango du adierazlearen puntuazioan.

B = Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak emandako guztizko puntuazioa, LAN-F informatika-aplikazioan emandako ereduaren arabera.

Atal honek % 40ko pisua izango du adierazlearen puntuazioan.

Nolanahi ere, beste informazio iturri batzuk ere aintzat hartu ahalko dira, halakorik balego, prestakuntza-zentro edo -erakundeen edo kanpoko beste erakundeen kargu utzitako ebaluazio-ekintzetan lortutako emaitzak, besteak beste.

15. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehen ordainketa bat, zenbateko guztiaren % 60, diruz lagundutako prestakuntza-ekintza hasi eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak alderdi hauek egiaztatzen dituenean:

– Baliabide tekniko, giza baliabide eta material guztiak (beharrezkoak nahiz, dagokionean, enplegurako lanbide-heziketa arautzen duen araudiak eskatzen dituenak) martxan jarri direla prestakuntza-ekintza planteatu eta diruz lagundu zen bezala egiteko.

– Lan-kontratuak benetan sinatu direla eta ikasleei Gizarte Segurantzaren alta eman zaiela, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuen bidezko prestakuntza dualeko proiektuen kasuan.

12.10 artikuluan ezarritakoari jarraituz, enpresek prestakuntza-ekintza kontratatzen badute, 6. artikuluko 1.e) atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, eskaerarekin batera aurkeztu ez badute; kontratuaren kopia ere aurkeztu beharko dute.

b) Bigarren ordainketa, gainerako % 40ra artekoa, prestakuntza-ekintza amaitu eta, kontratazio-konpromisoa duen prestakuntzaren kasuan, lan-kontratuak hasi ondoren ordainduko da, 16. artikuluan ezarritako baldintzetan diruz lagundutako ekintza justifikatu ondoren.

2.– Lan-kontratueterako emandako diru-laguntza 2018ko aurrekontuaren kargura ordainduko da, honela:

a) Lehenengo ordainketa, % 60koa, diru-laguntza ematerakoan ordainduko da.

b) Bigarren ordainketa bat, diruz lagundutako kontratazio-epea amaitzen denean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatzen duenean kontratatutako pertsona lanean izan dela.

Langileak enpresan lan egiteari uzten badio diruz lagundutako epea amaitu aurretik, 21. artikuluko 2.2 atalean aurreikusita dagoen moduan jokatu da.

3.– Diru-laguntzen lehen ordainketak 180.303,63 euroko zenbatekoa gainditzen badu, erakunde edo enpresa onuradunak banku-abala aurkeztu beharko du, diru-laguntza emateko ebazpenarekin batera jakinaraziko diren jarraibideei jarraituz.

16. artikulua.– Prestakuntza-ekintzengatik emandako diru-laguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

Prestakuntza-ekintzengatik laguntzen justifikazioa eta likidazioa honela egingo da:

1.– Likidazioa prestakuntza-ekintzetan parte hartu duen pertsona-kopuruaren arabera eta emandako ordu eraginkorren arabera egingo da, ezarritako modulu ekonomikoekin bat etorritik. Likidazioak ez du inola ere gaindituko hasiera batean onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Aurrez aurreko prestakuntzari buruzko likidazioa honela kalkulatu da:

– A modulua 15 ikasleekin biderkatuko da, prestakuntza egiten hasi ziren ikasleen kopurua 2.5 artikuluan ezarritako gutxieneko eta gehieneko muga artean badago, eta emaitza emandako prestakuntza-orduekin ere biderkatuko da.

– Aurrez aipatutako zenbatekoari gehituko zaio B modulua ekintzak dituen ordu-kopuruarekin biderkatuz ateratako zenbatekoa, ekintza amaitu duten ikasleen kasuan; eta B modulua prestakuntza-ekintzan parte hartu duten ordu-kopuru errealekin biderkatuz ateratako zenbatekoa, hori amaitu ez duten ikasleen kasuan. Ekintza bakoitza ikasle-kopuru batentzat onartu da, eta kalkulua muga horiek errespetatuz egingo da.

– Aurreko bi eragiketak aplikatuz ateratako balioa % 10 handituko da, zeharkako gastuengatik.

2.– Diru-laguntza jasotzen duen enpresak edo erakundeak prestakuntza-ekintza egin dela justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan:

– Enpresa edo erakunde onuradunaren ziurtagiria, laburpen-koadro batekin. Horretan jaso beharko dira ikasle bakoitzak benetan egindako eskola-orduak eta dagokien zenbatekoa, ezarritako modulu ekonomikoak eta artikuluko 1. puntuaren aurreikusitako irizpideak aplikatuz lortutakoa.

– Prestakuntza-orduetara joan direnean ikasleek sinatutako orriak, adierazitako orduak frogatzeko.

– Gainera, ondorengo kontratazio-konpromisoa duten aurretiko prestakuntza-proiektuetan: Ikastaroko ikasleekin sinatutako lan-kontratuen erantzukizunpeko adierazpena. Lanbidek adierazitako datu horiek egiaztatuko ditu Gizarte Segurantzako altaren kontsulta eginez.

Justifikatzeko dokumentu horiek aurkezteko azken epe-muga 2. artikuluko 3.1 d) atalean lan-kontratuak formalizatzeko ematen den hilabeteko epea amaitu eta 5 egun baliodunekoa izango da, kontratazio-konpromisoa duten hasierako prestakuntzako proiektuen kasuan; eta prestakuntza-ekintza amaitu eta 15 eguneko, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren oinarritutako prestakuntza dualeko proiektuen kasuan.

Ezarritako epeetan dagozkion agiriak aurkezten ez baditu, eskumeneko organoak 15 eguneko epe luzaezina emango dio onuradunari agiri horiek aurkez ditzan. Bigarren epe hori bukatu eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, itzultze-prozedurari hasiera emango zaio.

17. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak. Jarraipena eta kontrola.

1.– Onuradunaren betebeharrak izango dira, deialdi honen artikuluetan aurreikusitakoez gain, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 14. artikuluan jasotakoak eta Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Gizarte Segurantzaren (azaroaren 11ko 1/1997) 50.2 artikuluan jasotakoak.

2.– Zehazki, diru-laguntzen onuradunek frogaketa- eta kontrol-jarduerak igaro beharko dituzte, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarenak, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoarenak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarenak, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak ere; hala, lokal eta instalazioetarako sarbidea errazteaz gainera, prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileekin eta elkarrizketatzea egoki irizten dioten beste edozein pertsonarekin harremanetan jartzen utzi beharko die.

EGIFek kofinantzatzutako prestakuntza-ekintzek Europar Batasuneko araudian ezarritako frogaketa- eta kontrol-jarduerak igaro beharko dituzte, eta horiek Enplegua eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, Europako Batzordeak eta Europako Kontuen Auzitegiak egingo dituzte.

3.– Kontrol-ekintza hauek onartzeko betebeharrak orokor honen esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

– Finantzatzutako ekimenaren gauzatzeari edo bideragarritasunari buruzko edozein informazio ematea eta eskatzen zaion jarraipen-dokumentazioa bete eta bidaltzea.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea beste erakunde batzuetatik eratorritako diru-laguntzak edo laguntzak (deialdi honek diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten dietenak) eskatu direla edo eskuratu direla.

– Diruz lagundutako jardueraren xedeari edo izaerari nabarmen eragin diezaiokeen edozein gertaera jakinaraztea, baita diru-laguntza emateko aintzat hartu den inguruabarren baten aldaketa ere.

4.– Prestakuntzaren garapenean ekintzaren jarraipena egiteaz gainera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak auditoria- eta ikuskapen-plan bat ezarri ahal izango du, alde batetik, deialdian xedatutako eskakizunak betetzen direla ziurtatzeko eta, beste alde batetik, diruz lagundutako jardueren egiazko baldintzak zein diren berresteko.

5.– Diruz lagundu daitezkeen gastuek Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak betetzeko, erakunde onuradunak laguntzarekin lotutako transakzioak identifikatu beharko ditu, kontabilitate-identifikazio bereizi batekin edo kontabilitate-kode egoki batekin.

6.– Laguntzaren erakunde onuradunek 2023ko abenduaren 31ra arte gordeko dituzte kofinantzatzutako gastuei buruzko justifikaziozko dokumentu guztiak edo egiaztatutako kopiak, oro har onartzen diren datu-euskarrietan.

Agiri horiek jatorrizkoetan edo jatorrizkoen kopia konpultsatuetan gordeko dira, edo oro har onartutako datu-euskarrietan, bereziki jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik dauden agiriak.

18. artikulua.— Europako kofinantzaketaren ondoriozko komunikazio-betebeharrak.

Europako kofinantzaketa jasotzen duten prestakuntza-ekintzei dagokienez, erakundeek espresuki adierazi beharko dute Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa jaso dutela, gazteen enplegurako 2014-2020 aldirako programa eragilearen esparruan, irakaskuntza-material guztietan, sortzen diren bestelako materialetan eta diruz lagundutako jarduerak jakinarazi, zabaltzeko edo publikatuz.

Era berean, diru-laguntzaren erakunde onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Erregelamenduaren 115.2 artikuluan aipatutako zerrenda publikoan jasoko da.

19. artikulua.— Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako diru-laguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz, diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

20. artikulua.— Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.— Prestakuntza-ekintzak egiteko deialdi honetan xedatutako diru-laguntzak bateraezinak dira kontzeptu beragatik beste edonolako diru-laguntza edo laguntzarekin. Horren barne daude prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren berezko prestakuntza-gastuak finantzatzeko Gizarte Segurantzaren kuotei aplikatu dakizkiekeen hobariak, abenduaren 26ko ESS/2518/2013 Agindua-ren bidez araututakoak.

2.— Lan-kontratuak egiteko deialdi honetan xedatutako diru-laguntzak bateraezinak dira kontzeptu beragatik beste edonolako diru-laguntza edo laguntzarekin, Gizarte Segurantzako kotizazioko murriztapen eta/edo hobariekin izan ezik.

21. artikulua.— Diru-laguntzak itzultzea.

1.— Ezin izango da diru-laguntzaren ordainketa eskatu, eta aurretik zerbait ordaindu bazaie, bidezkoa izango da, batetik, jasotako zenbatekoak itzularaztea, eta, bestetik, diru-laguntza ordaindu zenetik aurrera sortuko ziren legezko interesak eskatzea Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 37. artikuluan zehazten diren kasuetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Gizarte Segurantzaren 53.1 artikuluan zehazten diren kasuetan. Bereziki, ondorengoetan:

a) Ez betetzea jarduera egin dela eta laguntza ematea edo baliatzea baldintzatzen duten baldintza eta betekizunak bete direla justifikatzeko obligazioa.

b) Laguntza jasotzea bete beharreko baldintzak bete gabe.

c) Jarraipen- eta kontrol-jarduerak ukatzea edo oztopatzea.

d) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko baldintzei buruz errealitatearekin bat ez datozen datu faltsuak ematea.

e) Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebeharrak, baldintza edo betekizun ez betetzea.

2.– Balizko ez-betetzeen maila honako irizpide hauen arabera zehaztuko da:

2.1.– Prestakuntza-ekintzak egiteagatik diru-laguntzei dagokienez:

a) Ez-betetze osoaren kasuan: Diru-laguntza emateko helburua edo hori justifikatzeko bete-beharra osorik ez betetzeak emandako diru-laguntzaren % 100 itzultzea ekarriko du.

Era berean, ez-betetze osotzat joko da egoera hau, eta diru-laguntzaren % 100 itzultzeko beharra ekarriko du:

– Diruz lagundutako ekintzak helburuen % 70era ez iristea, prestakuntza-orduen eta ikasle parte-hartzaileen kopuruaren arteko biderkadura izanik adierazlea.

– Kontratatzeko konpromisoa duten hasierako prestakuntza-ekintzen kasuan, prestatutako langileen % 70 baino gutxiago kontratatzea, edozein arrazoi dela medio, hori betetzea eragotzi duten ezinbesteko inguruabarren kasuan izan ezik. Inguruabar horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari behar bezala justifikatu behar zaizkio. Ezinbestetzat joko dira Kode Zibileko 1.105. artikuluan xedatutakoarekin bat datozen kasuak.

b) Ez-betetze partzialaren kasuan: Diru-laguntza emateko helburua edo hori justifikatzeko bete-beharra partzialki ez betetzeak emandako diru-laguntza aldatzea edo partzialki itzultzea ekarriko du. Prestakuntza-jardueraren % 70 eta % 100 artean gauzatu denean, aurreko a) puntuko lehen lerrokadan zehaztutako adierazlearekiko, emandako diru-laguntza 16. artikuluan aurreikusitako terminoetan likidatuko da.

Era berean, itzulketa partziala egin beharko da hasierako prestakuntza eta ondorengo kontratazio-konpromisoa duten proiektuetan, prestatutako langileen kopurua % 70 eta % 100 artekoa denean. Kasu horretan, emandako orduen araberrako likidazioa egin eta gero, egindako kontratazioaren ehunekoarekin bat datorren diru-laguntzaren ehunekoa ordainduko da.

Ikasleek kontratazioari uko egiteak ez du justifikatuko hori egiteko konpromisoa ez betetzea, kontratatzeiko ikasle gehiago ez dagoen kasuetan izan ezik.

2.2.– Lan-kontratuengatik diru-laguntzei dagokienez:

a) Diruz lagundutako epea amaitu baino lehen kontratua azkentzeak emandako diru-laguntzaren % 100 itzultzeko bete-beharra eragingo du, kausa hauetako batengatik ez bada: probaldia ez gainditzea, langileak lana uztea, bidezko kaleratzea edo kontratudunaren heriotza edo baliaezintasuna.

b) Kontratua aurreko a) letran zehaztutako kausetako batengatik azkenduko balitz diruz lagundutako epea baino lehen, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da, eta behin betiko zenbatekoa kontratuaren benetako iraupenarekiko proportzionala izango da.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntzaren enpresa edo erakunde onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, alegazioak edo egokitzeak jotzen dituen egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio.

4.– Alegazioak aurkeztu ondoren edo horiek aurkezteko epea igarota, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak ebatzpena emango du.

Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean burutu beharko da.

5.– Ebatzpenak ez-betetzaren bat izan dela iritziz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da eta, hala badagokio, bi hilabeteko epean, gehienez ere, dagozkion diru-kopuruak

Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra adieraziko dio onuradunari, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko aldiaren epea izango da.

Borondatezko aldian ez badira zenbateko horiek itzultzen, haiek premiamendu bidez berreskuratzeke izapideak hasiko dira.

22. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendu automatizatua.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan (abenduaren 13ko 15/1999) xedatutakoa betez, deialdi honetan araututako laguntza-eskaerak betetzearen ondorioz lortutako datu pertsonalak bere titulartasuneko fitxategi batean sartuko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Fitxategi horren izena «Enplegurako eta prestakuntzarako diru-laguntzak» da eta hura arautzen duen araua hau da: Agindua, 2012ko urriaren 10ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen.

Halaber, pertsona interesdunek datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubidea izango dute, legeak onartzen duen eran; horretarako, hori adierazten duen idazki bat igorri beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari (Jose Atxotegi kalea, 1 – Vitoria-Gasteiz).

23. artikulua.– Lehiari buruzko Europako araudia.

1.– Lan-kontratuak egiteko deialdi honetan adierazitako laguntzak «minimis» arauari lotuko zaizkio; Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduan dago xedatuta arau hori, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek aplikatzeari buruzko erregelamendua izanik. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakarrari «minimis» erako laguntzetan emandako zenbatekoak ezin izango du gainditu 200.000 euroko kopurua hiru ekitaldi fiskalen barruan.

2.– Kasuko ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitorpena egin beharko du pertsona edo erakunde eskatzaileak, zehaztu behar baita minimis laguntza berriak ez duela gainditzen Erregelamenduan ezarritako gehieneko muga.

24. artikulua.– Araudi osagarria, profesionaltasun-egiaztagiriak lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzak ematen diren kasuetarako.

Profesionaltasun-egiaztagiriak lortzera bideratutako prestakuntza-ekintzak ematen diren kasuetan, honako hau izango da bete beharreko araudia, deialdi honetan aipatzen ez diren puntuetan: 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, profesionaltasun-egiaztagiriak arautzen dituen eta hori garatzen duen ESS/1897/2013 Agindua, urriaren 10ekoa.

25. artikulua.– Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.

Diru-laguntzen programa honi honako arau hauetan bildutako diru-laguntzei buruzko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa, eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa). Era berean, arau hauetan xedatutakoa ere aplikatuko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Gizarte Segurantzaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duena– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (horretan arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezartzen dira horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak).

I. ERANSKINA

ESPEZIALITATE PROGRAMAGARRIAK ETA MODULU EKONOMIKOAK

1.– Prestakuntza-ekintza presentzial bakoitzeko modulu globala hiru osagairen batura da:

a) A modulua: Pertsonal-kostua.

Zuzeneko kostuaren azalpen honek irakasleen, tutoreen eta ikasketaburuen kostua biltzen du. A modulua prestakuntza-erakundeei aplikatu ahal zaizkien hitzarmen kolektiboaren arabera izango da, azpiko taulan ezartzen den bezala.

Prestakuntza-erakunde batek langileak autonomoen araubidean kontratatzen dituenean, 3,00 €/h/ikasle modulua aplikatuko zaio.

Prestakuntza emango duen entitatea sozietate kooperatiboa edo jarraian zehazten den koadroko hitzarmenetatik kanpoko bat duen entitatea bada (aldizkari ofizialean argitaratua), aplikatuko da ondoko formulatik lortzen den modulua. Dena dela, A modulua gutxienez izango da 3€/orduko/ikasleko.

$$\left(\frac{\text{Irakasleen urteko kostua}}{\text{Urtean emandako eskola orduak} \times \text{ikasle kopurua (15)}} \right) + \left(\frac{\text{Irakasleen urteko kostua} \times 100}{\text{urtean emandako eskola orduak} \times \text{tutoretzaren eta ikasketa burutzaren orduak urtean (400)} \times \text{ikasle kopurua (15)}} \right)$$

Lan-hitzarmena	€/h/ikasle, diruz lagundu daitekeena
Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastolen hitzarmen kolektiboa	5,35
Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimenezko ikastetxeen hitzarmen kolektiboa	4,92
Udalhitz	4,56
Osorik edo partzialki funts publikoekin mantendutako irakaskuntza-enpresa pribatuen VI. hitzarmen kolektiboa	3,29
Gipuzkoako eta Arabako langela eta bulegoen hitzarmen kolektiboa	3,07
Gipuzkoako esku-hartze soziala	3,08
Arabako esku-hartze sozialaren sektorearen hitzarmena	3,08
Bizkaiko esku-hartzearen IV. hitzarmena	3,00
Beste hitzarmen kolektibo edo enpresa-hitzarmen batzuk	3,00

Modulu hau 15 ikasleko kopuru finko bati aplikatuko zaio.

b) B modulua: Funtzionamendu-gastuak

b.1.– Modulu honek bi zuzeneko kostu mota barne hartzen ditu:

b.1.1.– Mantentze-lanen kostuak, azalpen mota hauek biltzen dituenak: altzariak berriztatzea, konponketak, publizitatea, komunikazioak, bilerak eta ikastaroak, kudeaketa enpresekin, liburuak eta argitalpenak, amortizazioak eta higiezinak eta ekipamenduen alokairuak.

b.1.2.– Lanbide-arloaren arabera eta prestakuntza-ekintzari dagokion kualifikazio-mailaren arabera kalkulaturako irakaskuntza-materialaren kostuak.

b.2.– Espezialitateen laburpena B moduluaren arabera.

b.2.1.– Oinarrizko gaitasunak eta gaitasun transbertsalak eskuratzeko prestakuntza-ekintzetarako:

Arloa	Kodea	Izena	Maila	Ordu-kopurua	B mod
ADG	ADGG0040V	Desgaitasuna duten pertsonentzako oinarrizko administrazio-eragiketak	0	115	1,30
ADG	ADGG0055V	Zerbitzu anitzetako laguntzailea	0	234	1,30
ADG	ADGG0120V	Zerbitzu orokorretako laguntzailea (ordenantza)	0	120	1,30
ADG	ADGD0001OV	Enpresa lehiakortasunaren eta erakunde-kulturaren kudeaketa	3	200	1,30
ADG	ADGD09EXP	Pertsonen eta taldeen laguntzea coachingaren ikuspegitik	3	280	1,30
ADG	ADGD01	Kalitate eta etengabeko hobekuntzarako teknikak enpresa-bikaintasunaren esparruan	3	425	1,30
AGA	AGAJ0002OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: lorezaintza eta nekazaritza	0	160	2,80
COM	COMM0042V	Desgaitasuna duten pertsonentzako oinarrizko telemarketin-eragiketak	0	115	1,50
COM	COMT0051V	Desgaitasuna duten pertsonentzako oinarrizko berriztapen-eragiketak	0	155	1,30
COM	COMM10	Oinarrizko txinera salmenta- eta turismo jardueretan	1	280	1,30
COM	COMM20	Oinarrizko errusiera salmenta- eta turismo jardueretan	1	280	1,30
ELE	ELEE0001OV	Lanbide-arlo honetako 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: elektrizitatea eta elektronika	0	160	1,70
ELE	ELEE0002OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: etxebizitzaren oinarrizko elektrizitatea	0	80	1,70
ELE	ELEQ0081V	Industria-prozesuetan tresneria elektrikoa eta elektronikoa muntatzeko langilea	0	130	1,70
EOC	EOCB0001OV	Lanbide-arlo honetako 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: eraikuntza eta obra zibila	0	160	1,70
FCO	FCOO0001OV	Lan-ingurunera bideratutako gaitasun soziopertsonalak	0	140	1,30
FCO	FCOO0004OV	Enplegararritasunerako trebetasun soziolaboralak	0	55	1,30
FCO	FCOV0001OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko funtsezko gaitasunak	0	150	1,30
FCO	FCOO03	Laneratzea eta ingurumenaren eta genero-berdintasunaren arloan sentsibilizatzea	1	10	1,30
FCO	FCOV0057V	Prestakuntza gaitasun pertsonal eta profesionaletan	1	150	1,30
FCO	FCOI0001OV	Gaitasun digitalak	2	50	1,30
FCO	FCOO0003OV	Negozio-proiektuak ezartzea: coaching ekintzailea	2	100	1,30
FCO	FCOO01	Laneratzea eta lana bilatzeko teknikak	2	15	1,30
FCO	FCOO02	Aukera-berdintasunaren arloan sentsibilizatzea	2	20	1,30
FCO	FCOO04	Lan autonomia sustatzea	2	30	1,30
FCO	FCOS02	Laneko arriskuen prebentzioa. Oinarrizkoa	2	30	1,30
FCO	FCOV05	Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan (ingelese) n2	2	180	1,30
FCO	FCOV07	Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan (frantsesa) n2	2	180	1,30
FCO	FCOV09	Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan (alemana) n2	2	180	1,30
FCO	FCOV22	Gaztelaniazko komunikazioa n2	2	120	1,30

2017ko urriaren 9a, astelehena

Arloa	Kodea	Izena	Maila	Ordu-kopurua	B mod
FCO	FCOV23	Matematikarako konpetentzia n2	2	120	1,30
FCO	FCOV26	Profesionaltasun-ziurtagirietarako (hizkuntzekin) 2. mailako oinarrizko konpetentziak: gaztelaniazko komunikaziorako konpetentzia, matematikarako konpetentzia eta atzerriko hizkuntzaren (ingelesaren) komunikazioaren konpetentzia.	2	420	1,30
FCO	FCOV27	Profesionaltasun-ziurtagirietarako (hizkuntzarik gabe) 2. mailako oinarrizko konpetentziak: gaztelaniazko komunikaziorako konpetentzia eta matematikarako konpetentzia	2	240	1,30
FCO	FCOV02	Komunikazioa gaztelaniaz n3	3	200	1,30
FCO	FCOV06	Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan (ingelese) n3	3	180	1,30
FCO	FCOV08	Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan (frantsesa) n3	3	180	1,30
FCO	FCOV10	Komunikazioa atzerriko hizkuntzetan (alemana) n3	3	180	1,30
FCO	FCOV12	Matematikarako konpetentzia n3	3	200	1,30
FCO	FCOV28	Profesionaltasun-ziurtagirietarako (hizkuntzekin) 3. mailako oinarrizko konpetentziak: gaztelaniazko komunikaziorako konpetentzia, matematikarako konpetentzia eta atzerriko hizkuntzaren (ingelesaren) komunikazioaren konpetentzia.	3	580	1,30
FCO	FCOV29	Profesionaltasun-ziurtagirietarako (hizkuntzarik gabe) 3. mailako oinarrizko konpetentziak: gaztelaniazko komunikaziorako konpetentzia eta matematikarako konpetentzia	3	400	1,30
FME	FMEH0001OV	Lanbide-arlo honetako 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: fabrikazio mekanikoa	0	160	1,90
FME	FMEH0108V	Industria-prozesuetan askotariko tresneria muntatzeko langilea	0	130	1,90
FME	FMEL0080V	Lan egin aurreko prestakuntza: aluminiozko arotzeria	0	360	1,90
FME	FMEM0064V	Lan egin aurreko prestakuntza: altzari metalikoak mekanizatzeko eta mihiztatzeko langilea	0	370	1,90
FME	FMEH01DCP	Desgaitasuna duten pertsonentzako industria-prozesuetako muntaketak eta oinarrizko eragiketak	1	130	1,90
HOT	HOTA0001OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: alokairuaren zerbitzuko oinarrizko eginkizunak	0	80	1,30
HOT	HOTR0003OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: jatetxeen eta tabernen zerbitzuko oinarrizko eginkizunak	0	80	1,70
HOT	HOTR00002V	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: sukaldeko oinarrizko eginkizunak	0	80	1,70
IMA	IMAI0001OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: etxebizitzaren oinarrizko iturgintza-lanak	0	80	1,70
IMP	IMPE0002OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: estetikaren eta gorputz-zainketen oinarrizko eginkizunak	0	240	1,70
IMP	IMPQ0001OV	1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortu aurreko prestakuntza: ile-apainketaren oinarrizko eginkizunak	0	160	1,70
SAN	SANP01DCP	Areto zurian erabilera sanitarioko materialak muntatzea	1	315	1,70
SEA	SEAG0074V	Hondakinak bereizteko langilea: hiri-hondakinak sailkatzea eta merkaturatzea	0	370	2,10
SSC	SSCE0070V	Dinamizazio soziala ingurune kalteberetan IKTen bidez	0	500	1,30
